- a) Agintariak aukeratutako erreserba naturalak
- b) Natura 2000ko eremuak (<http://natura2000.eea.europa.eu/>)
- c) Hegazti garrantzitsuen eremuak (<http://www.birdlife.org/datazone/site/search> > ikusi mapak)
- d) UNESCO Munduko Ondare eremuak (<http://whc.unesco.org/en/254/>)

Goian zerrendatutako eremuak bakarrik aplikatuko dira www.ekoenergy.org-eko mapan agertzen badira.

Erabakiak arrazoitu behar dira, ekoizpen lekuko indarreko legedia errespetatu eta leku horietako kontserbazio helburuak kontuan hartu. Erabakiak publikoak izango dira.

EKOenergia Batzordeak onespren hau beste entitate batzuei delegatu ahal die, bereziki ingurumen GKE nazional edo eskualdekoei, denbora eta eremu jakin batentzako. Entitate hauek EKOenergia Batzordearen betebeharrak berberengatik lotuta egongo da, bereziki beste kideak kontsultatzeko betebeharrarengatik.

Oharra: marea-ibaietako eta itsasadarretako instalazioetarako, energia hidroelektrikorako (besteak) arau berak aplikatzen dira (ikusi 8.3.C).

E. Geothermal energy

EKOenergia Batzordeak hurrengo tokietan kokatutako instalazioak onartzen ditu kide garrantzitsuei kontsultatu ondoren soilik:

- a) Agintariak aukeratutako erreserba naturalak
- b) Natura 2000ko eremuak (<http://natura2000.eea.europa.eu/>)
- c) Hegazti garrantzitsuen eremuak (<http://www.birdlife.org/datazone/site/search> > ikusi mapak)
- d) UNESCO Munduko Ondare eremuak (<http://whc.unesco.org/en/254/>)

Goian zerrendatutako eremuak bakarrik aplikatuko dira www.ekoenergy.org-eko mapan agertzen badira.

Erabakiak arrazoitu behar dira, ekoizpen lekuko indarreko legedia errespetatu eta leku horietako kontserbazio helburuak kontuan hartu. Erabakiak publikoak izango dira. EKOenergia Batzordeak onespren hau beste entitate batzuei delegatu ahal die, bereziki ingurumen GKE nazional edo eskualdekoei, denbora eta eremu jakin batentzako. Entitate hauek EKOenergia Batzordearen

betebehar berberengatik lotuta egongo da, bereziki beste kideak kontsultatzeko betebeharrarengatik

F. Bioenergia (solidoa, likidoa eta gasa)

Elektrizitatea ekoizteko biomasa, biogasa eta biolikidoa erregai gisa erabiltzen dituzten gailuak onartuko ditu EKOenergiak hurrengo baldintzak betetzekotan:

1. Elektrizitatea kogenerazio bidez sortutako energia da, Europar Legebiltzarraren 2004/8/EC Zuzendaritzaren eta 2004ko martxoaren 11ko Batzordearen arabera; energiaren barne merkatuan dagoen bero erabilgarriaren eskaeran oinarriturik kogenerazioa sustatzeari buruzkoa. Kogenerazio bidez ekoiztutako elektrizitatearen bolumenak Zuzendaritza honen II Eranskinean adierazten den moduan kalkulatu dira.

ETA

2. Kogenerazio prozesuaren eraginkortasuna (urteko batez bestekoa) %75 da gutxienez. Eraginkortasuna elektrizitate eta energia mekanikoaren ekoizpenaren batuketa eta baliagarria den beroaren produkzioa zati kogenerazio prozesu batean beroa lortzeko erabilitako erregai korrontea eta elektrizitate eta energia mekanikoaren (gordinaren) ekoizpena da. Formularen hitz guztiak Europar Legebiltzarraren 2004/8/EC Zuzendaritzaren eta 2004ko martxoaren 11ko Batzordearen arabera interpretatu dira, energiaren barne merkatuan dagoen bero erabilgarriaren⁴ eskaeran oinarriturik kogenerazioa sustatzeari buruzkoa.

ETA

3. Biomasa hurrengo iturrietatik dator:

- a) Europako Ekonomia Arian ekoiztutako egurrezko biomasa (EEA gehigarria), hurrengoak izan ezik:
- Motzondoak eta sustraiak.
 - Gune babestuetan ekoiztutako egurrezko biomasa: Agintariek adierazitako natura erreserbak, Natura 2000ko guneak eta UNESCOren gizateriaren ondare lekuak, natura babesten duen agentzia nazional edo eskualde-agentzia batek natura kudeaketa plan baten bidez ekoizpena onartu badu izan ezik.
 - 20 cm baino gehiagoko altuera duten enborrak. Hala eta guztiz ere, enbor hauek erabil daitezke baldin eta sustraien ustelkeriagatik (Heterobasidion) edo beste patogeno batzuegatik beste erabilera industrial batzuetarako balio ez badute.
 - EKOenergia Batzordeak beste salbuespen batzuk onartzen ditu.
 - Hornitzeko balio duten baso eskuragarrietako mozketak basoen urteko handitzearen %80 baino gehiago diren herrialdeetan, ez badute adierazten mozketak urteko basoen handitzearen %70 baino gutxiago den herrialde batetik

⁴ Bero erabilgarria justifika daiteken bero edo hozketa eskaera ekonomikoa asetzeko ekoizten dena da. No supere las necesidades de calor o refrigeración que de otro modo sería satisfecha en condiciones de mercado por procesos de generación de energía distintos de la cogeneración. Se incluye, por ejemplo la necesidad de calor en los procesos industriales.

datozela. Kontuan hartu beharreko mozketata tasa azkeneko 5 urteko zenbakien batez bestekoa da.

- b) EEAKo udalerrietako hondakin organikoen hartzidura anaerobikotik sortutako gasak.
- c) EEAKo ongarrien hartzidura anaerobikotik sortutako gasak.
- d) EEAn burututako ekoizpen prozesuetatik sortutako hondakin organikoak. Elikagaien industriaren eta basogintza industriaren hondakinak eta hondakin-produktuak. Zerrautsak, azalak, ezpalak eta baita likore beltza eta beste likore kontzentratu batzuk ere.
- e) Naturaren kudeaketaren bidez lortutako egurrezko biomasa onartzen da, eskualdeko natura edo natura nazionala babesten duen agentzia batek onartutako natura kudeaketa plan bat jarraitzen badu.

EKOenergia batzordeak Europako zonalde hurbiletako biomasa kategoriatan berak onartuko ditu, lehendabizi kideei galdetzen bazaie. Erabakia publikoa izango da. Basoen erabilera eta biomasaren ziurtagirien eskema oso era eraginkorrean lagundu dezake onarpen prozesuan.

Atal honetan, itsasoz gaindiko lurraldeak ez dira EEaren partetzat hartzen eta Suitzak EEAKo beste herrialdeek duten faborezko tratua bera du. EEAn ez dauden beste herrialde europar batzuk Europako elektrizitate merkatuan sartzen badira (edo EKOenergia bioenergiatik sortutako etxe- elektrizitatea merkaturatzea gustatuko balitzaie) bioenergiatik lortutako elektrizitatea ez da onartuko batzordearen onarpenari eta baldintzei buruzko erabaki bat hartzen ez duen arte.

Arau berezia ko-errekuntza kasuetan

Ekoizpen gailu bat biomasa eta beste erregaien forma onargarriak erabiltzen baditu, EKOenergia izendatzen den elektrizitatea sortuko du baldin eta biomasa hautagarria ekoizpen gailuaren urteko produkzioaren erregai kantitatearen %50 bada.

Baldintza hori betetzekotan, EKOenergia izendatzen den elektrizitate kopura hurrengoa da:

$$\text{Kogenerazio elektrizitatea} \quad \times \quad \frac{\text{urtean zehar biomasa hautagarria erabiltzen du}}{\text{urteko erregai sarrera}}$$

Biomasa hautagarria eta biomasa ez hautagarria darabiltzaten ekoizpen gailuen kasuan, salmentei dagokionez arau bereziak ezarriko dira. Ikusi 8.4.

Biomasa erabiltzen duten ekoizpen gailuen ikuskapena

Baldintzen betetzea gutxienez urtean behin berrikusiko dute:

- Agintarien izenean biomasa instalazioak aztertzen dituzten erakunde berak jatorri-bermearen legeriaren, jaulkipen eta merkatu araudiaren eta/edo laguntza legeriaren arabera.
- Egiatagiritako Europar Lankidetzaren egiaztatzea duen beste edozein kanpo ikuskarik.

Ikuskapenaren txostena EKOenergiaren Idazkaritzara bidali behar da. Ikusi testu honen 11.4 parte ere.

8.4. Nola jakin ekoizpen-gailu bateko elektrizitatea baliagarria den?

Hornitzaileek jakin behar dute ekoizpen batek (jatorri-bermea ziurtaturik) EKOenergiaren hautagarritasuna eta iraunkortasun irizpideak betetzen baditu. Horretarako, jatorri-bermean eskuragarri eta/edo EKOenergiaren webgunean dagoen informazioa erabiliko da.

Jatorri-bermean

Herrialde askotan, eta bereziki EECS (7. Atala) sistema erabiltzen dutenetan, Jatorri-bermeak ICS(*Sistema de certificación independiente*) izeneko etiketa baten bidez informazio gehigarria eduki dezake.

EKOenergiak AIB-rekin (*Association of Issuing Bodies*) akordio batera heldu nahi du eta ICS bezalako EKOenergiaren funtzionamenduari lotura duten jaulkipen-erakundeekin. EKOenergiaren irizpideak burutzen diren eraren arabera, ekoizleak adostasun froga egiazta dezakeenez (adibidez, EKOenergia Batzordearen ebazpena) ICS etiketa lortzeko prozedura erraza izan daiteke.

Nahiz eta jatorri-bermeak EKOenergia ICS etiketa ez izan, informazio erabilgarria du, energia plantaren izena eta kokapena besteak beste. Informazioa EKOenergiaren webgunean dagoen informazioarekin konbina daiteke jatorri-bermea EKOenergiarentzako baliagarria den ziurtatzeko.

EKOenergia webgunean

EKOenergiaren Idazkaritza, kideekin lankidetzan, hautapen prozesua errazteko tresnak garatuko ditu sarean:

- Mapak gune babestuekin (Ikusi 8.3ko zerrenda).
- Baimendutako instalazioen zerrenda eguneratua (bereziki eskualdeko irizpideez gain beste batzuk ezarri direnean).
- Automatikoki hautagarriak diren instalazioen zerrenda (gune babestuetatik kanpoko turbina eolikoak).

Biomasa erabiltzen duten ekoizpen gailu batzuentzako arau berezia

EKOenergia ICS etiketa edukitzeko aukera bereziki garrantzitsua da bioenergia iturri hautagarriak eta ez hautagarriak erabiltzen dituzten instalazioentzako. (Ikusi 8.3)

Aukera hau ez badago, hurrengo araua ezarriko zaio ekoizpen gailuetatik sortutako elektrizitateari: hornitzaile bakar batek merkatura dezake EKOenergiaren izenean.

Hornitzailea eta EKOenergiaren arteko kontratuan adieraziko da iturri hautagarri bioenergetikoak partzialki bakarrik erabiltzen dituzten ekoizpen gailuetatik sortutako EKOenergia saltzeko aukera duten eta ahal izatekotan zeintzuk izango diren horiek.

Data: EKOenergiara elektrizitaterako baliagarria bada jakiteko data elektrizitatearen ekoizpenaren data da (Jatorri bermean adierazten den ekoizpen data, ikusi 10. Kapitulua)

9. KLIMA

9.1. Fondo Klimatiko

Saltzen den EKOenergiaren watt/h bakoitzeko, gutxienez 0,10 euroko (hamar zentimo) laguntza eman behar zaio EKOenergiaren Fondo Klimatikoari. Fondoa ahalik eta era eraginkorrean erabiliko da energia berriztagarriaren inbertsio berriak bultzatzeko.

Eraginkortasun handiena lortzeko helburua izanda, EKOenergiak ez ditu bere ekimenak abian jarriko, izan ere, dagoeneko existitzen diren esperientziak, mekanismoak eta tresnak erabiliko dituzte.

EKOenergia Batzordeak erabakiko du nola erabili Fondo Klimatikoaren dirua, kideen iritzia aldez aurretik kontutan hartuz eta bereziki aintzat hartuko dituzte EKOenergiaren enpresa hornitzaileen, ingurumen GKE-en eta EKOenergiaren Aholkulari kontseiluaren proposamenak. Hauek dira neurri posibleak (zerrenda ez da zehatza):

- Eguzkiko energia edo energia eoliko bidez egindako inbertsioa garapen prozesuan dauden herrialdeetan CDM Gold Standard irizpideak errespetatzen badituzte (www.cdmgoldstandard.org). Finantzatutako proiektuak karbono diru-laguntzak badakarte, kontabilitate bikoitza saihesteko (proportzionalki) deuseztatuko dira.
- Energia berriztagarriaren garapenerako potentzial altua baina baliabide nahikorik ez duten herrialde europarretan egindako energia berriztagarriaren proiektuen inbertsioa.
- Ingurumen eta gizarte balio handia duten energia berriztagarriaren proiektu txikiak.
- Europar jaulkipen eskubideen deuseztapena, merkaturan urritasuna dagon seinalea jaso bezain pronto.

Merkaturatzaileak, eskualdeko eta GKE nazionalekin, EKOenergia batzordeari eska diezaiokete herrialde konkretu batean euren salmentei esker Fondo Klimatikoari egindako ekarpenak deuseztatzeko, beste energia proiektu batzuetara bideratzeko.

Proiektu hauek salmentaren herrialdean kokatuko dira eta eskatzaileak proiektuak ingurumen eta gizarte balio handia duela frogatu behar du. Proiektu hauek energia aurreztea ere barnean har dezakete beti eta onurak zenbakarriak diren.

9.2. EKOnergy full power

Elektrizitate berdearen testuinguruan, adituek gehigarritasunaz aritzen direnean ekoizpen berriztagarriaren gaitasun gehigarriaz ari dira edo karbonoaren murrizketa gehigarriaz, egungo merkatu baldintzetan eta oraingo legeriarekin gertatu izandakoarekin alderatuz (babes publikoa barne).

“Gehigarritasuna” bultzatzeko prest daudenenei EKOenergiak ematen dien erantzunetako bat EKOenergia Full Power eskuratzeko aukera da. EKOenergia Full Power Fondo Klimatikoari ekarpen handiagoak egiten dizkion EKOenergia da. Watt/h ekarpena nahikoa izan behar du ekoizpen berriztagarrientzako inbertsioen dirua emateko (hobe eguzkikoa edo haizekoa) elektrizitate berriztagarriko watt/h bat sortzeko gai dena bere bizitza erabilgarrian.

Ekarpenaren kopuru zehatza hautatutako proiektuen menpe egongo da eta posible da denborarekin murriztuz joatea.

10. JATORRIA, SEGIMENDUA ETA KONTABILITATE BIKOITZA

10.1. Segimendu prozedurak

EKOenergiak jarraian zehazten ditugun prozedurak erabiltzen ditu:

- Energia Berriztagarrien Zuzendaritzaren 15 atalean ezartzen den araberako jatorri-bermeen Sistema (Europar Legebiltzarraren 2009/28/CE Zuzendaritza eta 2009ko apirilaren 23ko Kontseilua, iturri berriztagarrietako energiaren erabilera bultzatzearen ingurukoa).
- Beste erreklamazio sistema batzuk EKOenergiak onar ditzake hurrengo baldintzekin:
 - o Kontabilitate eta eskaera sistema burutzen duen erakundea gune horretan bakarria bada. Agintariek ez badute erakundea aukeratu EKOenergia Batzordeak onartu beharko du.
 - o Deuseztapen printzipioa eskaintza eta kontsumoaren froga bezala definituta dago.
 - o Kontabilitate bikoitza saihesten da, adibidez, herrialdean hondakin nahasketen baliogabetzeak aintzat hartuz.
- Hau da EECS (Europako Egiatagiri Zientifikoaren Sistema⁵) sistema bereganatu duten herrialdeen kasua, hala nola, Norvegia, Islandia eta Suitza.
- Hasiera batean, jatorri-bermeak⁶ kontsumoaren alorrean⁷ deuseztatuko dira eta jatorri-bermeen erabilera bat egin beharko du elektrizitatearen segimenduari buruzko legeria

⁵ AIB garatu du EECS sistema (Igorleen elkarte, www.aib-net.org) eta Europako 15 herrialdeetan dago abian (2013).

⁶ Atal honen gainerakoan, aurreko kapituluetan eta jarraian agertzen “jatorri bermeak” terminoa “Jatorri bermeak eta segimendu elektrizitatearen beste ziurtagiriak” bezala irakurri behar da, EKOenergiak onartuak testu honen 10.1 atalaren arabera.

⁷ Eremu bat jatorri bermearen igorpena, transferentzia eta baliogabetzea gainbegiratzen duen erakundea aktiboa den gunea da. Herrialde bati egiten dio erreferentzia ia beti.

nazionalarekin eta azken honen zabalkundearekin. Baliogabetze guztiak RE-DISS/EPED-ari jakinarazi behar zaizkio (AIB8 taldeko alorretan, betetzen da).

Kasu batzuetan, EKOenergiak ekoizpenaren alorrean ere onartzen ditu baliogabetzeak, beste alor bateko kontsumoaren izenean. Ikusi 10.3.

10.2. Inportazioa eta Esportazioa

Inportazioa eta esportazioa posible izateko baldintza hauek bete behar dira:

- Esportatutako jatorri-bermeak alor esportatzailearen hondakin-nahasketatik ezabatzen dira.
- Bi alorretan hondakin-nahasketa hautatutako erakunde ofizialak kalkulatu du REDISS/EDED adierazitako aholkuen arabera.
- Elektrizitatearen inportazioaren eta esportazioaren alorrak REDISS/EPED-ren aholkuen arabera derrigorrezko zabalkundea du.
- Bi alorrek REDISS/EPED-ri eskainiko dizkiete inportazio eta esportazioaren inguruko estatistika gardenak. Hau EECS sistema erabiltzen den alorretan betetzen da.

10.3. Kontsumoaren herrialdetik kanpoko baliogabetzeak

Jatorri-bermeak ekoizpenaren alorrean baliogabetu daitezke beste gune bateko kontsumoaren arabera (ex-eremu baliogabetzea) baina soilik hurrengo kasuetan:

- AIB-rekin harremanak duten eremuetan suertatutako jatorri-bermeen baliogabetzeak (8. Oharra ikusi) AIB-rekin harremanik ez duten alorretan suertatzen den kontsumoaren izenean (Elektrizitate berriztagarriaren atributuaren esportazioa dela medio, kontuan hartzen da REDISS/EPED hondakin balioaren kalkuluan).
- Jatorri bermeen ex-eremu baliogabetzeak AIB taldeari lotuta ez dauden herrialdeetan posible izango da behin EKOenergia Batzordeak onartuta. Posible izango da kontabilitate bikoitza kenduta eta baliogabetzearen eremuak REDISS/EPED-ri jatorri bermeen kantitateari eta motari buruzko informazioa ematen badio, kontsumo herrialde bakoitzean zehaztutakoak. EKOenergia Batzordeak ez-eremuetako baliogabetzea erabaki du AIB-rekin harremanik ez duten herrialdeetan, herrialdez herrialde egin behar da, epe mugatua izan behar du eta ezin da izan herrialde horiek truke sistema europar batean ez sartzeko arrazoi batean bihurtu.

-

10.4. Interpretazioa eta komunikazioa

EKOenergiak erabakitzen du zein den irizpideen interpretazioa. Onartzen diren eremuen zerrenda www.ekoenergy.org orrialdean egongo da eskuragarri. Webguneak posibleak diren

⁸ AIB jatorri berme nazionalen erregistroak konektatzen ditu, berarekiko lotura dutenak eta interkomunikazioa ahalbidetzen du ziurtagiriak transferitzeko. Igorleen Elkarteak administratzen du (www.aib-net.org).

nazioarteko transferentziak zeintzuk diren adierazten du (EKOenergiarentzat) eta zein alorretan deuseztatu daitekeen jatorri-bermea beste alorretako EKOenergiaren kontsumoaren izenean.

Addition agreed on 7 August 2015

EKOenergy accepts the I-REC system as a valid tracking system for EKOenergy with the following specifications/limitations:

- *We only allow sales of green electricity in the same country as where the electricity has been produced.*
- *The certificates have to be used/cancelled within 1 year after the production of the electricity.*
- *The recognition of the I-REC system as a tracking system for EKOenergy can be withdrawn anytime with a two-year notice.*
- *The same MWh cannot be used at the same time in the carbon offsetting market.*

11. IKUSKAPENA ETA EGIAZTAPENA

11.1. Nork ikuskatu ahal du eta nola?

Agintari europarrek, nazionalek edo eskualdekoek egiaztatu ez dituzten gertakariak eta zenbakiak, Egiaztagiriko Lankidetzaren Europarraren kide den erakunde batek (eskubide guztiak) baimendutako kanpo ikuskari batek egiaztatu beharko ditu.

Ikuskapenak EKOenergiaren idazkaritzak eskainitako zerrenda batean oinarrituko da. Egiaztapen prozesua errazteko dauden aukera guztiak erabiliko dira (bereziki, dauden tresnak, prozedurak eta kontrolak erabiliz).

11.2. Nori egin behar zaio ikuskapena eta zergatik?

A. Elektrizitate hornitzaileak

Kanpoko ikuskari batek burutuko EKOenergiaren hornitzaileen ikuskapena eta hurrengo egiaztatuko du:

- Saldutako EKOenergia kantitatea eta mota (zati ekoizpen iturria eta jatorri herria) bat dator hornitzaileak baliogabetutako jatorri bermeen kantitate eta motarekin. Kontuan hartu hornitzaileak eta ikuskariak Jatorri-bermea EKOenergiarako baliagarria baden jakiteko informazio guztia Jatorri-bermean eta/edo www.ekoenergy.org orrialdean aurkituko duela.
- REDIS/EPED-ari baliogabetzea jakinaraziko zaio, testu honen 10.kapitulua arabera. Hau AIB taldearekin harremanetan ez dauden alorretako baliogabetzei baino ez zaie ezarriko.

-

B. Jatorri bermeen hornitzaileak salmenta bereiziaren kasuan

EKOenergia kontsumitzaileei ematen zaien elektrizitate etiketa bat da. Ez da jatorri-bermeen etiketa bat. Kontsumitzaileek elektrizitate fisiko berezitua erosten badute (hornitzaile baten elektroiak, beste baten jatorri-bermea) EKOenergia kontsumoaren lekuan egongo da.

Hala eta guztiz ere, arrazoi praktikoak direla medio, komenigarria da ikuskapena jatorri bermeen hornitzaileen mailan antolatzea eta ez elektrizitate fisikoa jatorri bermeak betetzen dituen lekuan (hau da, kontsumoaren gunean)

Jatorri bermeen hornitzaileek informazio guztia dute euren eskura, haiek dakite nola bete irizpide guztiak eta datuak konbina daitezke, eskala ekonomiak ahalbidetuz.

Beste alde batetik, partaideak (Jatorri bermeak) kontsumitzaileentzat baliagarria da bakarrik elektrizitate fisikoarekin konbinatzen bada.

Beraz, erosketaren berezi baten kasuan, kanpo ikuskari batek hornitzailea ikuskatuko du eta hurrengoa egiaztatuko du:

- EKOenergia kontsumitzeko prest dauden kontsumitzaileei saltzen zaien jatorri bermeen kantitatea eta mota (zati ekoizpen iturria eta jatorri herria) bat dator baliogabetutako jatorri bermeen kantitate eta motarekin.
- REDISS/EPED-ri baliogabetzea jakinarazi zaio, testu honen 10.kapitulua arabera. Hau AIB taldearekin harremanik ez duten alorretan baino ez da ezarriko.
- EKOenergia lana finantzatzeko ekarpena (Ikusi 7.3), saldutako EKOenergia kopuruarekin bat dator.
- Fondo Klimatikoari egindako ekarpena (Ikusi 8.3) saldutako EKOenergia hidroelektrikoaren kopuruarekin bat dator. Halaber, ikuskariak ezarritako gutxiengoa baino handiagoak diren ordainketen baieztapenak egiaztatzen ditu.
- Fondo Klimatikoari egindako ekarpena (ikusi 9.kapituluak) saldutako EKOenergia kopuruarekin bat dator. Halaber, ikuskariak ezarritako gutxiengoa baino handiagoak diren ordainketen baieztapenak egiaztatzen ditu. Beste zerrenda batean jarriko dira EKOenergia Full Power-ren salmentak.

11.3. Segimendua

Hornitzaileak urtero aurkeztu beharko dio ikuskapena EKOenergiaren Idazkaritzari, eta ez ekainaren 30a baino beranduago (aurreko urteko salmententzat).

EKOenergiaren Idazkaritzak antolatu dezake (EKOenergiaren esku) egiaztapen eta kontrol gehigarriak. Baldintzak eta Prozedura Baimen Kontratuan zehazten da.

11.4. Biomasa erabiltzen duten ekoizpen gailuentzako urtero egiten diren ikuskapenak

8.3.Fn zerrendatzen diren irizpideen betetzea urtean behin behintzat berrikusiko dira:

- Agintarien izenean biomasa instalazioak aztertzen dituzten erakunde berak jatorri-bermearen legeriaren, jaulkipen eta merkatu araudiaren eta/edo laguntza legeriaren arabera.
- Egiaztagirirako Europar Lankidetzaren ziurtagiria duen beste edozein kanpo ikuskarik.

Egiaztapenak honako hau biltzen du:

- Elektrizitatearen ekoizpen orokorra
- Bero-ekoizpen orokorra
- Kogenerazio prozesuaren eraginkortasuna
- EKOenergiarako hautagarriak diren biomasaren kopurua eta sarrera mota.

Ikuskapena EKOenergiaren Idazkaritzara bidali behar da.

EKOenergiaren Idazkaritzak antola dezake (bere diruarekin) egiaztapen eta kontrol gehigarriak. Kontuan hartu hau ez dela EKOenergiaren ikuskapen bat eta ez dio EKOenergiari baimenik ematen ekoizpen gailuarentzat. EKOenergia bezalako ekoizpen gailuetatik sortutako elektrizitatea saltzeko baldintzetako bat baino ez da. Ikusi 8.3. F kapitulua.

12. NOLA SALDU EKOenergia?

EKOenergia saldu nahi duten hornitzaileek «Elektrizitate hornitzaileentzako eskaera inprimakia» bete behar dute (www.ekoenergy.org orrialdean eskuragarri dago) eta EKOenergiaren Idazkaritzara bidali. Hornitzaileek EKOenergia saldu ahal izango dute “Energia hornitzaileentzako EKOenergiaren lizentzia akordioa” sinatzen dutenean eta kontratu horren baldintzak errespetatuz.

Jatorri bermeen hornitzaileek, EKOenergiaren irizpideak bete dezaten euren bezeroak laguntzeko prest daudenak, salmenta eskaera inprimakia bete beharko dute (eskuragarri www.ekoenergy.org webgunean) sinatu eta EKOenergiaren Idazkaritzara bidali). EKOenergiaren izena eta logotipoa erabiltzen hasi dezakete “EKOenergy berezituaren salmentarako akordio-lizentzia” sinatu bezain pronto.

EKOenergiaren Idazkaritzak Akordio Lizentzian eta bere eranskinetan ezarritako baldintzen betetzeaz arduratuko da.

13. EKARPENAK

Kapitulu honetan arestian aipatutako ekarpenen ikuspegi orokorra eskaintzen da.

EKOenergia gisa saldutako watt/ordu bakoitzerako, hornitzaileak gutxieneko 0,08 euro (zortzi zentimo) ordaintzen dio EKOenergiaren erakundeari, sareko ekintzak finantzatzeko eta energia berriztagarriaren eskaera areagotzeko ekintzak sustatzeko. EKOenergiaren 250 watt/orduko baino gehiago kontsumitzaile berari saltzen bazaio, kopuru hau ez da ordaindu behar 250 GW/h-tik gora.


EKOenergia gisa saldutako watt ordu bakoitzeko, gutxieneko 0,10 euroko (hamar zentimo) laguntza emango zaio EKOenergiaren Fondo Klimatikoari (Ikusi 9. Kapituluaren ere).

EKOenergia gisa saldutako energia hidroelektrikoko watt ordu bakoitzeko, gutxieneko 0,10 euroko (hamar zentimo) laguntza emango zaio EKOenergiaren Animalia Funtzari (Ikusi 8.3 kapituluaren ere).

14. IZENA ETA LOGOTIPOA

Hurrengo logotipoa erabiliko dugu:

www.ekoenergy.org/about-us/logo



EKOenergy izango da komunikaziorako izen nagusia. Eskualdearen hizkuntzaren arabera, antzeko aldaerak erabiliko dira (Ekoenergia, Ekoenergi, Ekoenergie)

EKOenergi: daniera, norvegiarra, suediera

EKOenergia: euskara, katalana, finlandiarra, italiara, hungariera, poloniera, portugesa, eslovakiera

EKOenergía: gaztelania

EKOenergie: txekiera, holandarra, alemana, luxenburgera, errumaniera

EKOénergie: frantsesa

EKOenerji: azerbaijanera, turko

EKOenergija: albaniera, bosniera, kroaziera, lituaniera, esloveniera

EKOenergija: letoniera

EKOorka: islandiera

ЕКОэнергия: bielorrusiera, Kazakhera, errusiera, ukraniera

ЕКОенергия: bulgariera

ЕКОенергија: mazedoniera, serbiarra

ΕΚΟενέργεια: greziera

Idazkaritzak beste edozein izen onar dezake eta/edo komunikazio logotipoa eskualde konkretu batentzat, baita enpresa bateko produktu berezi batentzat.

15. IRIZPIDEEN BERRIKUSPENA

EKOenergia estandar dinamiko bat da. Garapena eta esperientziarekin, EKOenergiak ere eboluzionatuko du. Interesa duen edozein kidek arauaren irizpideei buruzko iruzkin bat bidali dezake edo irizpide aldaketa bat proposa dezake edozein momentutan EKOenergiaren Idazkaritza edo Batzordearekin harremanetan jarritz.

Azterketa guztiek Praktika Onen Gizarte eta Ingurumen Estandarren Ezarpenerako ISEAL Kodeak ezarritako irizpideak jarraituko dituzte.

Irteeraren osteko 3 urteetan, EKOenergia honen arabera ebaluatuko du bere politika:

- Gune babestuak, eta aztertuko da area gehigarriren bat sar daitekeen zerrendan,
- Biomasiatik lortutako elektrizitatearentzako arauak.
- Energia hidroelektrikorako arauak.

